

DESAGERTUTAKO
BILBO



RAMON ETA VALENTIN ZUBIAURRE / EMB

Iñigo López Simón

DESAGERTUTAKO **BILBO**

 efaDós®

DESAGERTUTAKO BILBO

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma

Lehenengo edizioa: 2024ko otsaila

© testuena: Iñigo López Simón

© argazkiarena: hainbat egile

© edizioarena: Editorial Efadós

© «Desagertutako Euskal Herria» bildumarena: Editorial Efadós

EDITORIAL EFADÓS

Edison kalea, 3 · A nabea
Les Torrenteres industrialdea
08754 El Papiol (El Baix Llobregat)
Telefono zkia.: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

Jatorrizko ideia, diseinua eta fotokonposizioa:

Editorial Efadós

Hizkuntza-aholkularitza:

M. Neus Doncel Saumell

Itzulpena:

Leire Mtz de Marigorta Varela

Azaleko argazkia:

Pedro Telesforo Errazquin Astigarraga / EMB

Akronimoak:

AFCEC (Centre Excursionista de Catalunya
zentroaren argazki artxiboa)

AMB - BUA (Archivo Municipal de Bilbao-Bilboko
Udal Artxiboa)

AMVG (Archivo Municipal Pilar Aróstegui -
Pilar Aróstegui Udal Artxiboa)

EMB (Museo Vasco de Bilbao - Euskal Museoa Bilbao)

MMPV (Museo de la minería del País Vasco -
Meatzaritzaren)

 @efados

 @efados

 @Editorial Efadós

ISBN 978-84-19736-52-9

DL B-3411-2024

Lan hau erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko edo eraldatzeko modu oro titularren baimenarekin bakarrik erabil daiteke, legeak aurreikusitako salbuespen-kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzue, jo ezazue CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. OR.

SARRERA

Gatazka etengabea dagoen hiria

11. OR

IBILALDI BAT ITSASADARRETIK

Lana eta bizitza ur-ertzean

69. OR.

BILBOKO AUZOAK

Begirada bat itsasadarretik harago

184. OR.

AURKIBIDE ALFABETIKOA

Sarrera

GATAZKA ETENGABEAN DAGOEN HIRIA

Iñigo López Simón, historialari bilbotarra

Londresen hamabost urtez egon ostean, Bilbora itzuli zen Alejandro de la Sota Aburto, jaioterrira. *Excelsior* egunkaria sortu zuen bertan, eta hainbat argitalpenetan kolaboratu zuen. 1917. urtean Bilbori buruzko zenbait testu argitaratu zituen *Hermes* aldizkarian, geroago *Divagaciones de un transeúnte* liburuan bildutakoak. Idazleak testu horietan islatzen zituen hiribilduan barrena, beroki berdea soinean, egiten zituen ibilaldietako inpresioak. Guk da-

kigula behintzat, lehenbiziko bilbotar *flaneur*-a, hiritar paseatzailea, izan zen. Bere idazlanetan egiazta daiteke Bilbo eraldaketa sakonean murgildutako hiria zela, eta erritmo bizian barneratzen ari zela xx. mendean. Azeleazio ekonomiko, demografiko, sozial eta urbanistikoko prozesuan zegoen, bereziki Bigarren Karlistaldia amaitu zenetik, eta horrek betiko aldatu zituen hiribildua eta bertako biztanleak.

Esku artean duzun liburu honetan Bilboko hiribilduko argazkiak jaso ditugu, xix. mendearen erdialdetik hasita, 1937an tropa frankistek hiria hartu artekoak.



PEDRO TELESFORO ERRAZQUIN ASTIGARRAGA / EMB

ITSASO ETA MENDI ARTEAN

Geografia ez da kontu hutsala. Hala, Bilboren kokapen geografikoak, mendiz inguratuta baina itsasoari lotuta, izaera berezia eman dio hiriri. Gainera, faktore garrantzitsua izan da hiriaren garapen ekonomiko eta sozialerako. Mendiek hiria babesten zuten, eta itsasadarrak bizitasuna eta oparotasuna eman dizkio. Haren gainean eraiki da eta eboluzionatu du hiriak, haren uren eta bihurtune bihurrien bueltan. Orrialde honetako irudian, gizon batzuk Abrara begira daude, Sendeja kaiaren eta udaletxeko zubiaren inguruan, 1893an. Aurreko orrialdean, San Anton, Atxuri eta Begoñako ikuspegia, 1874an.



PEDRO TELESFORO ERRAZQUIN ASTIGARRAGA / EMB

Etengabe aldatzen den hiri bat ikusiko dugu argazkietan, baita horren lekuko diren biztanleak ere. Gatazkan dagoen lurraldea, dinamika komertzial eta industrialen eta bertako fisionomia eta idiosinkrasiaren artean. Hareatzek bide emango diete kaiei, eta errebaiek, tailer eta biltegiei. Itsasadarra bideratuko da, tren agertuko da eta hiriak elizate mugakideak irentsiko ditu.

Itsasadarra izan zen hazkunde horren guztiaren bizkarrezurra. Izan ere, hiria handitu zenean, ur-suge handi hori izan zen hiriaren ardatz nagusia; haren ezker aldean hedatu zen Zabalgunea —Kale Nagusia ardatz, kale perpendikular eta paraleloen lauki-sarea osatzen zuena—, eta horrez gain, tailerrak, fabrikak

eta meategiak zabaltzen ari ziren atzerriko zein bertako kapital inbertsioen bidez. Biztanleria bikoiztu egin zen 1860. eta 1887. urteen artean. 1900. urterako, Bilbok 90.000 biztanle zituen. Hiri komertziala izate-tik, hiri industrialia izatera igaro zen Bilbo, Alejandro de la Sotak Ingalaterran ezagutu zituen hirien antzera. Orrialde hauetan aurkituko dugu eraldaketa horren guztiaren lekuko grafikoa, *flaneur* bilbotarrarenak izan zitezkeen hainbat iruditan. Bertan, gaur egungo lekuak igarriko ditugu, eta denboraren joanak irentsi-tako beste batzuk deskubrituko ditugu. Gure egungo hiriaren isla ikusiko dugu guztietan, desagertu den horretan ere badagoelako ezagutzen dugun Bilboren jatorria.



PEDRO TELESFORO ERRAZQUIN ASTIGARRAGA / EMB

IBILALDI BAT ITSASADARRETIK

Lana eta bizitza ur-ertzean

Bilboko itsasadarra hiriaren eta gainerako munduaren arteko lotura izan da, eta aldi berean, hiriaren bizitza eta garapena artikulatu dituen ardatza. Itsasadarrak bizitasuna eta oparotasuna eman dizkio Bilbori. Merkantzia ugariko itsasontzi handiak eraman dituzte ur horiek, baina gainezka ere egin izan dute, eta suntsipena ekarri.

Atal honetan, ur horien ibilbidean barrena bidaiatuko dugu: mareak nabari ez diren Santa Isabel zubiaren azpitik hasita, Ubide pasealekuan, hiriaren bazterretaraino. Ibilbidean, hiriaren bilakaera ikusiko dugu, XIX. mendearen amaieratik 1936ko Gerra Zibila lehertu arte bertan zeuden kai eta zubien bitartez. Denboraren joanaren lekuko izango gara, itsasadarraren bi ertzetako jarduera biziarena. Bilboko itsasadarrari, ur-suge handi horri, lanaren bidez lotuta zeuden zamaketarien, merketarien, andre garbitzaileen eta bestelako langileen jarduna ikusiko dugu.

Ezkerreko irudian itsasadarra ageri da, Martzana kaiaren eta Erribera kalearen parean, 1870eko hamarkadan.



IGNASI CANALS I TARRATS / AFCEC - IGNASI CANALS I TARRATS FUNTSA

MENDI ARTEAN

Mendi artean eta itsasadarren ondoan dago Bilbo; kokapen horrek izaera berezia eman dio. Ezkerrean, 1920. urteko panoramika bat ikus daiteke, eta hari esker hiriaren ezizen maitekorra uler dezakegu: botxo, Bilbon *zuloa* esan nahi duena.

TRANBIA BAT ARRATIAZ

Eskuinean tranbia ikus daiteke, gaur egun desagertua. Tranbiak hiria eta Arratia eskualdea lotzen zituen Ubide pasealekuaren eta Santa Isabel zubiaren parean, azken hori Santa Ana de Boluetako burdin forjatuz eraikia. Atzealdean, El Ponton irin fabrika, egungo Abusu Ikastola.

L. G. BILBAO (ED.) / AMB - BUA



BILBAO — Paseo « Los Caños »

ANDRE GARBITZAILEAK

Santa Isabel zubiaren ondoan garbitzaileak elkartzen ziren. Emakume horien ogibidea zen langileen –gehienak inguruko meategietakoak– edo beren etxe-koen arropa garbitzea. Leku horiek bilgune eta sororitate gune ziren garai hartako emakumeentzat. Orduak ematen zituzten bertan, gizonezkoen begiradatik urrun. Arropa garbitzea lan gogorra zen, eta artritisa eragiten zien eskuetan, hezetasunaren eraginpean luzaroan egoteagatik. Garbigailuak iritsi eta hedatzearen ondorioz, eta uraren kutsadura areagotzearekin batera, ofizioa desagertu egin zen itsasadarraren ertzetatik xx. mendearen erdialdean. Irudia 1890eko hamarkadakoa da.

PEDRO TELESFORO ERRAZQUIN ASTIGARRAGA / EMB

